25. urteurrena Urria

URRIAK 20, larunbata:
bailarako Marmitako Txapelketa San Pedroko Frontoian.
Ondoren Herri Bazkaria.

Pasaia-Lezo Lizeoa

URRIAK 28, igandea:
Lizeoko ikasle ohi guztien BAZKARIA eta ARGAZKI ERAKUSKETA.

hazi eta hezi hazi eta hezi
hazi eta hezi hazi eta hezi

lehiaketa
ezetz asmatu!



Argazkian, Unai Alduntzin Elkarlanean argitaletxeak eskainitako saria jasotzen. Bera, ekaineko Brankan egin genuen galderari erantzuna eman eta irabazle suertatu zen. Uztaileko zenbakian lehiaketarako beste galdera bat plazaratu genuen, baina ez dugu erantzunik jaso. Beraz, berriro ere galdetu egingo dugu berdina:

Zenbat biztanle dauzka Pasaiak?

a) 15.200 inguru b)17.200 inguru c)21.200 inguru

Erantzunak horrela helarazi diezaizkigukezue:
e-postaz: branka@euskalnet.net
postaz: branka pasaiako herri-aldizkaria, Eskalantegi 38 behea,200110, Pasaia
telefonoz: 943341045ra deituz.

Animatu eta bidali zuen erantzunak.
Saria: Antoine de Saint-Exepéryren Printze Txikia.

Erreportajea: Oporren itzuleran bidaien oroitzapenetan blai

branka

Pasaiako herri-aldizkaria



Iñigo Chaurreau
Umiltasunaren garaipena

2001eko iraila **19 zenb.**

BADATOZ BERRIRO MULTIESKAINTZAK!

Bonardi monturak familia guztiarentzat.

BONARDI MONTURAK 4.150 PTA. (24,94 €)

Distantzia guztietara ondo ikusteko.

LENTE* PROGRESIBOAK 19.500 PTATIK AURRERA (117,20 €)

MONTURAK + KRISTALAK* UMEENTZAKO 8.900 PTATIK AURRERA (53,49 €)

MONTURAK + KRISTALAK* 60 URTETIK GORAKOENTZAT 8.900 PTATIK AURRERA (53,49 €)

* Eskaintzaren balioa ± 4 ESF. ± 2 CIL lente txuriendako da.

Eskaintza hauen balioa 2001/10/31 arte da.

MULTIOPTICAS ERRENTERIA
Esmalteria Plaza, 7
Tel. 943 51 78 11
ERRENTERIA

SUN TROPIK

Maria de Lezo
ERRENTERIA

R.P.S. 164/99

branka

Pasaiako herri aldizkaria

2001EKO IRAILA/ 19 ZENB.

Argitartzaileak:
Arnasa Euskara Elkartea
Abaraska Euskara Elkartea
Tel: 943 341 045
Lege Gordailua:SS-42/2000
ISSN:1576-0138
Inprimategia:
Lankorpe

Tirada:
2500
Branka aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Koordinatzaileak
Olatz Mitxelena eta Urko Etxebeste
Hizkuntza arduraduna
Izaskun Aldezabal
Diseinua
Txema Garzia Urbina
Maketazioa
Urko Etxebeste
Publizitatea
Eñaut Gantxegi TEL.: 689 78 33 17

Kolaboratzaileak
Jon Vicente, Luis Mari Laboa, Olatz Sistiaga, Imanol Carballo, Jon Goikoetxea, Izaskun Aldezabal, Markos Sistiaga, Idoia Vicente, Patxi Porta, Aintzane Taberna, Erkuden Muguruza, Edurne Urkiola, David Zapirain, Maripi Etxarri, Bernar Arratibel, Asier Vilas, Xabi Etxaniz, Patxi Berdote, Unai Martin, Joseba Antxustegietxarte, Xabier Garagarza, Juanra Cano, Ander Poza, Iñaki Berrio.

Branka hilabetero zure postontzian debalde jaso nahi baduzu, ez duzu behekaldean duzun kupoia bestrik bete behar eta helbide hauetara helarazi:

harpidetza
txarteld

Izen deiturak.....
Helbidea.....Herria.....
KP..... telf..... e-posta.....

postaz
Branka Pasaiako herri-aldizkaria
Eskalantegi 38, behea. 20110 Pasaia
telefonoz
943 34 10 45 telefonora deituaz
e-postaz
branka@euskalnet.net helbidean

Aldizkari honek erakunde hauen laguntza jaso du:

Pasaiako Udala

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentua

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa
zuri esker
gracias a ti

IPARRA taberna
I
M E
H
Tel.: 943 34 01 64 PASAI ANTXO

laburrean

5. EZ ZAITEZ MOZTU

6-13. BARRUTIZ BARRUTI

14.ELKARRIZKETA
Iñigo Chaurreau

18. KALE-INKESTA
Bidaiatzeko zein garraio mota nahiago duzu?

20. ELKARRIZKETA
Oporren itzuleran bidaien oroitzapenetan blai

23. AGENDA

24-25 OROKORREAN

26. KRITIKAK

27. HORRELAKOAK GINEN



telefono interesgarriak

UDAL ZERBITZUAK
Gizarte zerbitzuak:
943391187
Kultura, euskara eta gazteria:
943400108
Idazkaritza:
943344140
Dirubilketa:
943522150/4
Kontuhartzailetza:
943344157
Diruzaintza:
943344153
Hirigintza:
943344224
Udaltzaingoa:
943400000
Obrak eta zerbitzuak:
943393693
Antxoko Udal Liburutegia:
943515737
Trintxerpeko Udal Liburutegia:
943401053
San Pedroko Udal Liburutegia:
943399348
Pasaia Musikal Udal Fundazioa:
943396055

LARRIALDIAK
DYA:
943521557
Gurutze Gorria:
943511605

BAILARAKO EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK
Lau haizetera:
943341048
Orratx!
943344626
Branka:
943341045
Oarso Telebista:
943493818/19
Oiartzun Irratia:
943493711

interneteko helbideak

PASAIA
Branka herri-aldizkaria:
Branka @euskalnet.net
Alkartasuna Euskal Dantza Taldea:
Alkartasuna_edt.pasaia@euskalherria.znn.com
www.gipuzkoa.net/pasaia/
www.paisvasco.com/pasaia/

EUSKARA
Euskaltzaindia:
www.euskaltzaindia.net
Elhuyar:
www.elhuyar.com
UZEI:
www.uzei.com
IVAP/HAEE:
www.ivap.com
UPV/EHU
www.ehu.es
Udako EuskalUnibertsitatea
www.ueu.org
Euskal Herrian Euskaraz
http://www.geocities.com/capitolHill/7012/
Euskal itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen elkartea:
www.eizie.org

KOMUNIKABIDEAK
Argia:
www.argia.com
Euskaldunon Egunkaria:
www.egunkaria.com
EITB:
www.eitb.com

BILATZAILEAK
www.jalgi.com
www.aurki.com
www.kaixo.com

INSTITUZIOAK
Eusko Jaurlaritza
http://euskadi.net
www.ej-gv.es

Goardiako farmaziak

Urriaren 1n: Ana Isabel Sancho. Blas de Lezo 11. Pasai Antxo. Tel.: 943510545
Urriaren 13an : Ana Isabel Sancho. Blas de Lezo 11. Pasai Antxo. Tel.: 943510545
Urriaren 17an:: Ignacio Ormazabal. Eskalantegi 32. Pasai Antxo. Telefonoa: 943 510781
Urriaren 20an: MªTeresa Vega Gure Zumardia 27. Pasai Antxo. Tel.: 943 512349
Uztailaren 29an: Ignacio Ormazabal. Eskalantegi 32. Pasai Antxo. Telefonoa: 943 510781

besteak

JAIOTZAK, HERIOTZAK ETA EZKONTZAK

Irailan, 9 pasaitar jaio dira 4 pertsona hil dira, eta 12 ezkontza ospatu dira.

ALTZARIAK JASOTZEKO EGUNAK

Trintxerpen, urriaren 2an
San Pedron, urriaren 3an
Antxon, urriaren 4an
Donibanen, urriaren 7an

ez zaitez **moztu**

Antxon adin txikikoentzat jolastokiak falta dira

Kalea beti izan da haur eta gaztetxoentzat jolastoki, eta nahiz eta gaur egun etxeko joku bakartiekin denbora pasatzen duten, kalea eta lagunen konpainia ere gustoko dute. Bereziki eskola aurreko egun hauetan eta gero, eguraldi onak jarraitzen duen bitartean, eskolatik ateratzean amek txikiekin, eta haundixeagoak beren tresnekin -bizikleta, baloi, patinak- lekua eskatzen dute.

Antxon, honetan ere, hutsunea nabari da. Erabaki ona izan zen Merkatuaren plazatxoan zeuden kolunpioak 'zerako horma'ren ondoan jartzea. Baina ez da nahikoa. Txirrista txikian ibiltzeko adina ez dutenen bizikletek eta tabla gurpildunek edonon ematen digute sustoa. Malabarismoei esker beraiek eta gu osorik atera gaitezke. Eta zaharrenek edo ez dute lekurik edo Biteri eta frontoian ibiltzeko borrokatu behar dute -oso leku txiki eta jendearentzat igarobide- jolastu nahi izanez gero.

Antxon, hasitako obrak amaitezinak bihurtzen diren gure herri honetan -azokaren ingurua adibide- aspaldi entzuten ari gara tamaina desberdineko hainbat plaza egingo dituztela, eta ez diote inoiz lanari ekiten. Gainera, garrantzitsuena, herriari merezi duen bultzada eman diezaiokeena, Luzuriaga eta Campsako lurretako urbanizazioa alegia, hor dago, lo, eskabadorak noiz apainduko eta garabiak bizitza berria noiz emango zain. Behar bada orain kolunpioetan aritzen direnen seme-alabek izango dute Antxo Hegoaldean leku zabalagoetan disfrutatzeko aukera.

Pazientzia izaten jarraitu beharko dugu. Udalean agintaldi batzuk pasatzen itxaroan beharko dugu. Haur eta gazteok, ez ezazue zuen ondorengoen beharretara egokitutako barrutian bizitzeko itxaropena gal. Helduok, eta zer esanik ez zaharrak, hormaren bat nola botatzen duten ikustearekin konformatuko gara, eta agian planoren bat ikusi ahal izango dugu. Ea zortea dugun.

J.C

Brankazaleok, hementxe duzue zuen txokoa zuen kezkak, zalantzak, iradokizunak edo dena delakoak Pasaia osotik zabal daitezen. Bidali iezaguzue gutuna, eta guk, inolako mozkinik gabe, argitaratuko dugu. Horrela helarazi diezaizkigukezue zuen aportazioak:
postaz: eskalantegi 38 behea, 20110 Pasaia
e-postaz: branka@euskalnet.net
telefonoz: 943 34 10 45

MATRIKULA ZAITEZ

EUSKARAZKO KLASEAK / URRATS GUZTIAK

- Gehiago hitz egiteko.
- Ikasitakoa ez ahazteko.
- Ikastaro trinkoak.
- Hizkuntza eskakizunak.

> EGA titulua.
> Guraso taldeak.
> Gazteen taldeak

Informazio gehiago nahi izanez gero, etorri honako euskaltegi hauetara edo bestela deitu telefono hauetara:
Trintxerpe AEK euskaltegia Euskadi etorbidea 29, 3-4. Tlf: 943 39 58 12
Txirrita AEK euskaltegia Zumalakarregi 9, atzea Tlf: 943 52 55 45

TESTUAK: MARKOS SISTIAGA/ JON VICENTE/ OLATZ SISTIAGA/ LUIS Mª LABOA,/MARIPI ETXARRI

donibane

Gau eta egun arraunean

Pasaia inguruan arrauna eta estropadak eguneroko gauza dira, egunero ikusten ditugu ontziak, batel, trainerila edo traineruak, entrenamendu saioak egiten, eta estropada ere ugari izaten dira. Baina estropadak 20 minutu iraun beharrean 2 hilabete inguru irauten badu eta estropada eremua kosta aldean kokatu beharrean itsas zabalean kokatzen bada, orduan ez zaigu hain gauza arrunta iruditzen.

TESTUAK: MARKOS SISTIAGA ARGAZKIA: DANI BLANCO

Albaola elkarteko bi kidek, Xabier Agote 37 urteko donostiarrak, eta Urko Mendiburu 30 urteko hondarribiarrak "Ward Evans" munduko estropadarik gogorrenean parte hartuko dute. Urriaren 7an aterako dira Tenerifetik eta gutxi gora behera 2 hilabete beharko dituzte EUSKADI izeneko ontzian, arraunean, Atlantikoa zeharkatu eta Barbados uharteetara iristeko.

Elkartearen helburu nagusietako bat euskal itsas ekimena munduan zehar zabaltzea da. Euskaldunen hainbat bidaia eta zeharkaldi ezagutzeke ditugu, batetik arrantzaleek egiten zituzten bidaiak, Terranoba aldera e.a., sekretupean gordetzen zituztelako, eta bestetik Euskal Herriari herri izaera ukatu zaiolako. Beraz, Albaola iraganari begira dago guzti horiek berreskuratzeko asmotan baina baita etorkizunari begira ere eta estropada hau honen lekuko litzateke.

Honela ikusten dute Xabier eta Urkok: "Gaur egun euskaldunek lurrean burutzen diren goi mailako espedizio askotan parte hartzen dute, Himalayan burutzen direnak lekuko, baina itsasoan aportazio gutxi egiten dira, Ugarte eta Munduategik egindako zeharkaldiak hor daude, baina gainerakoan ezer gutxi. Ward Evans estropadan 15 herrialdetako 36 ontzirekin batera egotea aukera polita da Euskal Herriaren izena munduan zehar zabaltzeko".

Animu, itsasoa eta haizea lagun izan ditzazuela.

ESTROPADAREN EZAUGARRI NAGUSIAK:

2.900 itsas mila, gehienez 100 egun dituzte bukatzeko, ontzi guztiak berdinak dira, ontzi bakoitzean 2 arraunlari bakoitza bi arraunekin, ez dute kanpoko laguntzarik izango, beraz, behar duten guztia barruan eraman beharko dute: janaria e.a., ura edangarri bihurtzeko tresna behar-beharrezkoa izango dute, laguntza eskatuz gero estropadatik kanpo geratuko lirateke.

Azkenean entregatu dituzte MEI-PIko etxeak

Bizilagun guztiek jai giroan ospatu zuten etxebizitzen jasotzea. Branka sortu genuenetik beti argitaratu nahi izan dugu berri hau. Zorionak eta goza dezazuela etxea.

Ori eta Okabe mendietara bisita paregabea

Udara sasoia pasa ostean, Itsas Mendi Elkarteko Mendi Taldeak udazkenerako egutegia zehaztuta du jada, eta ugariak izango dira , herriko talde honi esker, mendizale guztiek igo eta bisitatu ahal izango dituzten mendigailurrak. Urriak 28rako, igandea, esaterako, Ori eta Okabe mendietara igotzeko txangoa antolatu zuten.

Mendia maite duenarentzat plan ederra izan zen hauxe. Lehenik 2021 metroko altuera duen Ori mendira igo ziren Larrañeko mendatea abiapuntu hartuta. Ori mendia Pirineoetatik hasita aurkitu daitekeen lehen bimilako mendia dugu, eta bere inguruneak, halaber, mila kondaira eta istorio desberdin gordetzen ditu. Besteak beste Euskal Mitologian hain ezaguna den Mari sorginaren gordelekua zela dio honelako kondaira batek.

Behetik ikusita itsuri berezia duen mendia dugu Ori, eta bere gailurrera igotzen direnek Europako pagadirik handienetariko bat ikusi ahal izango dute: Iratiko basoa.

OKABE, KROMLETXE

Ori mendia utzi eta Okabe mendia izan zen igo beharreko bigarren gailurra. Azken hau Ori mendia baino txikiagoa izan arren, bere meditontorra benetan zoragarria da. Ohiko tontorraren ordez Okabek zelai ederra du goiko puntan , alturako belarraz estalita dagoena. Bertan, Euskal Herriko megalitiko garaiko kromletxe ederrenetarikoa aurki daiteke.

IZENA EMATEA

Ibilaldietan parte hartu nahi dutenek Patxiku edo Errekatxu tabernetan izena eman beharko dute, edo zuzenean Itsas Mendi Elkarteko Mendi Taldeak duen egoitzatik pasa daitezke asteartetan arratsaldeko zazpi eta erdietatik bederatzi eta erdiak bitartean.

Halaber, txangoen ordaina eta irteera ordua herrian zehar jarriko diren karteletan iragarriko dela aurreratu digute antolatzaileek.

LUIS Mª LABOA

Sanjuandarrak kontxan

Urtero bezala, iraileko lehenbiziko bi igandeetan urteko estropada garrantzitsuena ospatu da, Kontxakoa hain zuzen ere, eta bertan Pasai-Donibaneko bi traineruk parte hartu dute. Donibaneko traineruaren kasuan ez ziren sailkatu eta ondorioz ezin izan zuten bi igandeetan estropadetan parte hartu. Koxtapekoak, berriz, sailkatu ziren eta bertan egon ziren. Aurreneko igandean lan txukunik ez zutenez egin bigarren igandean ezin izan ziren ohorezko tandan irten baina bigarren igandean estropada ikaragarria egin zuten, traineru guztietatik onenak izan ziren eta ondorioz sailkapenean hirugarren postura arte igo ziren. Brankatik, gure zorionik beroena opa diegu.

Estropadekin bukatu aurretik zera adierazi nahi dugu, gureganaino zurrumurru edo nahi batzuk iritsi direla, bi elkarteak elkartzeko edo harremanetan jartzeko ordua iritsi ote den adieraziz. Une honetan gaia ahoz aho dabil eta hurrengo zenbakian agian gaia sakonago aztertuko dugu.

komikia
Aitor Puy

trintxerpe

Trintxerpeko dendak berrituz doaz!!

Udaran haize berritzaileek hartu dute Trintxerpeko Euskadi Etorbidea. Uztailan oporretara irten ginenok, harriduraz beterik egin ditugu Jaizkibel kaleko aldapa eta Elizaren aldapa arteko metroak, irailean oporralditik itzuli garenean. Zergatik harriduraz? Non aurkitu ditugun berrikuntzak? Bada azkenaldian zeresan handia ematen ari diren merkatarien dendetan. Guk zenbatuta, lau izan dira udan euren dendak berritzeari ekin dietenak: Uria Estankoa, Sonesa kiroldenda, Ruth-en Ileapaidegia eta Karmele arropadenda.

Lau hauek adibide bat baino ez dira, eta ziurrenik aurrerantzean etorriko diren beste berrikuntzen arrerapena. Izan ere, merkatariek gero eta eskaintza hobea egin nahi digute pasaitarroi, euren dendetan erostea erraztu nahi digute produkturik onenak etxera hurbilduz. Laster datorren txanpon berriari aurpegi berriarekin begiratuko diote, beraz, Trintxerpeko merkatariek!!



Euroa etorri da!

Guztiontzat gabonak pasa eta urte berriarekin batera iritsiko bada ere, Trintxerpera irailean iritsi zen Euroa. Dendetan benetako euroekin erosteko aukera izan genuen 17a eta 23a bitartean. Kutxan pezeta truk euroak lortu eta dendetan eurotan gauzak ordaindu. Astea ondo amaitzeko, gainera, asteburuan euroa kalera atera zen haur, gazte eta heldu guztiek txanpona gertutik ezagutu zezaten. Batek baino gehiagok, ziurrenik "ditxosozko" txanpona behin baino gehiagotan bedeinkatuko zuen, baina gauza bat argi geratu da: ahaleginean inor ez da hil.

Casimiro Martinez-eko bost langile kalean!

Trintxerpeko edozein bazterretan irakur dezakegun mezua da Casimiro Martinez Garbitasun entrepresako bost langile kalean geratu berri direla. Garbitzaileek langileek apirila eta maiatzean egin zuten grebarekin zerikusia izan dezakete kaleratze hauek kalean ikusten ditugun karteletan irakur dezakegunez.
Irailaren amaiera aldera kaleratutako bost langileekin elkartasuna adierazteko sinadura bilketa egiten ari dira Trintxerpen kaleratutako langileak.

98.5 F.M
RADIO DONOSTI
DONOSTI IRRATIA
betiko musika
98.5 F.M
RADIO DONOSTI
DONOSTI IRRATIA

TESTUAK: ERKUDEN MUGURUZA / BERNAR ARRATIBEL

san pedro

Mikel Astarloza:ziztu bizian

Hurrengo urtetik aurrera, bi urterako kontratua sinatu du Ag2r talde frantsesarekin. Hau da bere jauzia profesionaletara. Ume bat zenean, gainontzekoek futbola aukeratu zuten bezala berak txirrindularitzaren alde egin zuen apustu. Oraingoan apustu gogorragoa du esku artean, afizionatuetan lortutako maila profesionaletan erakustea. Jauzi honetaz eta beste bitxikeria batzuei buruz hitz egiteko bildu gara berekin.

"Comme ça va?"
Tres bien. Frantsesa ez dut kontrolatzen. Gainera denboraldia oraindik ez dut bukatu, eta ez dut denbora gehiegirik ikasteko. Nire asmoa , bukatzean zerbait ikastea da.

Afizionatuetatik profesionaletara, Euskal Herritik Frantziara. Torreko Ama Birjinaren kandela guztiak zureak al dira?
Esfortzua eta meritu propioak hor daude baina, Ama Birjinaren kandela batzuk ere izan ditut. Espainian profesionaletara pasatzea oso zaila da eta beste herrialde batzuetara are zailagoa. Iaz ere Italiara joateko aukera izan nuen baina bukaeran gauza okertu zen eta aurten Frantziara joateko, onartu beharra dut kandela pare bat piztu direla.

San Pedron ohitura da kirolean eskuak mugitzea, nola hasi zinen zu hankak mugitzen?
Ni gogoratzen naiz hasi nintzela, pelotan eta futbolean, hemen, San Pedron. Eta hamaika urtekin nire hiru lehengusu bizikletan ibiltzen ziren eta ni ere hantxe sartu nintzen.Lagun guztiak futbolean ibiltzen ziren eta nik txirrinda probatu nuen eta gustatu zitzaidan. Hastean konturatu nintzen banuela zereginik eta hasieratik garbi nuen txirrindularia izan nahi nuela.

Txirrindulari baten entrenamendua gogorra da, nolakoa da zure egun bat?
Goizeko 9:30ak aldera jaikitzen naiz, gosaldu eta 10:30ak aldera entrenatzera joaten naiz. Egun bakoitza oso desberdina da, egun batetan bi orduko entrenamendua duzu eta hurrengo egunean sei ordukoa.
Entrenamendua taldeka egiten dugu, hemen Donostialdean 6-8 txirrindulari gaude eta elkarrekin goaz. Izan ere, egun bakoitza desberdina da. Agian sei orduko ibilaldia taldean egiten dugu, baina serie espezifikoak egin behar badituzu, bakarrik zoaz. Horregatik batzuetan hamabitarako etxean zaude eta bestetan lautan iristen zara. Gero bazkaldu, siesta egin eta arratsaldean berriro zerbait izaten da. Masaje, berriro entrenamendua edo besterik gabe nonbaitera joan kafe bat hartu eta lasai egon.
Dieta aldetik nik badakit zer jan dezakedan.n Txuleta noizean behin jatea ez da hain txarra, baina fritoak eta patata frijituak bezalako gauzak guztiz debekatuta dauzkat.

Zure koadrila ezagututa, zaila al da parrandari ihes egitea?
Bizitza nahiko desberdina da. Astean zehar nahiko lasai egoten naiz, koadrilakoekin kafetxo bat hartu eta fuera. Baina asteburua iristean, normalean nik karrera izaten dut eta beraiek parranda. Orduan bizitza zeharo desberdina dugu. Baina inbidia ere ez dit ematen, beraien bidea bat da eta nirea beste bat.
Beti etxean, orain kanpoan. Zer botako duzu faltan?
Bizi berez etxean bizitzen jarraituko dut. Aldatuko dena hemen eta han emango dudan denbora da. Orain arte 3 aste etxean eta bat kanpoan pasatzen nituen, hemendik aurrera hilabete bat han eta beste bat hemen pasako dut. San Pedron izango dut etxea, baina konpetizio garaian Leon edo Palentzian korritu behar dut

Epoa arraunean, antidopinga?Banpiro asko omen dago, zer iruditzen?
Ondo iruditzen zait kontrola eramatea tranparik ez egoteko kirolean. Primeran iruditzen zait edozein momentutan joan eta odola ateratzea. Gainera orain txirrindulariek edozein egunetan etxera joateko eskubidea dute.
Orain dela gutxi Urdaibaik egindako deklarazioak aproposak iruditzen zaizkit. Kontrola beharrezkoa da. Ez bada erabiltzen, ondo, baina erabiltzen bada harrapatuko dute.

Miguel Mari Lasa txirrindulari ohiak arropa denda ireki du herrian, gerora begira zeintzuk dira zure asmoak?
Gustatuko litzaidake bizikletaren munduarekin edota kirolarekin lotura duen zerbaitetan lan egitea, baina honela ez bada edozertan. Hala ere, momentua iristean ikusiko dut, oraingoz ez naiz gehiegi preokupatzen.

Zuretzako zer da txirrinda bat?
Desplazamenduak egiteko aukera bat. Ez da bakarrik konpetitzeko edo kirol bat. Garraiobide bat da, taxi edo autobusean mugitu beharrean, zergatik ez bizikletan?

Nola egiten dira eginbehar fisiologikoak konpetizioan?
Karrera baten aurretik betetzeko rutina bat dugu. eta horietako gauza bat pixa egitea da. Horrela hasieran behintzat ez duzu gogorik izango. Gure karrerak 3-4 ordukoak izaten dira eta izerditu arten batzuetan gogoa sortzen da. Profesionaletan, nolabait ados jartzen dira, mantsoago doaz tramo batetan egin beharrekoak egiteko, edota erorketa bat suertatzen denean, solidaridadeagatik itxaron egiten dute eta une horiek aprobetxatzen dira. Gu aldiz, oso azkar joaten gara eta beti dago norbait tiratzen hasten dena. orduan aprobetxatu behar da jeitsiera bat dagoenean (pedalari ez emateko), aldezka jartzen zara bizikleta gainean eta martxan zoazela egiten duzu.
Honekin lotuta, behin gertatu zitzaidana askotan kontatu izan dut, koadrilakoei eta. frantzian debekatua dago herrietan pixa egitea, multa jartzen dute. Frantzian korritu genuen behin eta pixa gurea sartu zitzaidan, orduan rekta batetan hasi nintzen egiten, kurba eman eta hara non herrian sartzen garen. ezinezkoa nuen orduan gelditzea, beraz jendea guri txalotzen eta ni pixa egiten. Gero karrera bukatu zenean multa jarri zidaten.

Gogoratzen al duzu zure lehenengo bizikleta?
Lehenengoa berez, oso txikitan izan nuen, gorria zela gogoratzen naiz. baina karreretako lehenengoa 11 urterekin jaso nuen, grisa zen. ez dakit zeinek eman zigun. konpondu genuen eta horrekin hasi nintzen.

Herriko derrape gune berria (rotonda) estetikoki zer iruditzen zaizu?
Hasieran itxura txarra hartzen nion, baina orain berdeguneekin, herriari beste itxura bat ematen dio. Derrapeak egiteko ona izango da baina ez dut probatu.

Herrian apaiza bizikleteroa ere izan genuen, norbaiti errezatzen al diozu? Superstiziorik bai?
Errezatu ez diot inori errezatzen. baina santiguatu, gehienetan egiten dut, badaezpadaere. superstizioen aldetik,ez didate gehiegi eragiten. Dortsalen zenbakiak eta gauza horiek ez zaizkit inporta.

Kontzentraziorako, San Pedroko zein toki aukeratuko zenuke?
Puntak. Oso erlajantea iruditzen zait gainera orain nahiko txukun dago.

Pobladoko malda jaitsi al duzu inoiz frenorik gabe?
Behin lagun batekin, anbulategiko malda jaisten ari nintzen eta frenorik gabe gelditu zen bizikleta. Nire laguna lehenengo jaitsi zen eta bere amarekin hitz egiten zegoen. Bat-batean ni azaldu nintzen eta farmaziako kristalaren kontra frenatu nuen.

Herriko fototeka martxan

Herriko memoria historikoa gal ez dadin, Sanpedrotarra Auzo Elkarteko lagunek herriaren iragana eta beste gauza asko ezagutzeko denbora-makina jarri dute martxan azken egunotan.
Horretarako, herritar askori bere argazki zaharrak eskatzeari ekin diote, zeruan izar bakoitzak bere argi polita duen bezala, bakoitzaren etxean aurki daitezkeen irudiek distira polita ere izan dezaketelako.
Memoria galtzen duen herria kanposaturako bidean dagoela kontutan harturik, herriko fototeka antolatzearen albistea guztiz pozgarria gertatu da sanpedrotar askoren artean.
Beraz, badakizue, Auzo Elkarteko norbait zuengana hurbiltzen bada edota zuen argazki bilduman altxor bat baduzue, beldurrik gabe haiengana jo: kopiak egin eta gero argazkiak berehala bueltatuko dituzte; gerora, leku, pertsona eta sentsazio anitz gure etorkizuneko entendimendura etengabe bueltatuko diren bezalaxe.

TESTUAK: XABIER GARAGARZA/JUANRA CANO/ANDER POZA/URKO ETXEBESTE

antxo

Jon Arrizabalaga "Une politek une latzak gainditu dituzte"

Jon Arrizabalaga eta Julen Mariñelarena kirola oso gustoko duten bi antxotar ditugu. Abenturazale bikote honek, Kantauri osoa piraguaz zeharkatu du eta Jon solaskide genuela bidaia gogor honen berri izan dugu. Hau marka antxotar hauena!

Jon, nola sartu zineten abentura honetan?
Bidaiaren hasiera baino sei hilabete lehenago, afari batean ginela, Julenek ideia azaldu zidan. Egia esan, Santiagoko bidea egiteko asmoa geneukan baina azkenean Kantauria piraguaz zeharkatzearen abenturak gehiago erakarri gintuen. Julenek piraguan ibiltzen bazekien, nik, ordea, zerotik ikasi nuen bidaiaren aurreko hilabeteetan gogor entrenatuz. Gainera piragua erosi behar izan nuen nire bidaiarako aurrekontua dexente murriztuz.

Azaldu bidaiaren nondik-norakoa edo zertan zatzan zehazki.
Uztailaren 31ean Donibanetik irten ginen. Gure bidaiaren muga Santiagon zegoen baina azkenean Islas Ciesera iritsi ginen Vigo parean. Hala ere gero buelta eman genuen atzera, Pontevedran bukatuz abuztuaren 22an. Ikusten denez Atlantikora ere iritsi ginen. Bidaia etapetan banatuta zegoen, distantzia ez zen finkoa, hori eguraldiaren eta gure indarraren baitan baitzegoen. Kanpinetan edota hondartzetan egiten genuen lo, benetan itzela zen hondartzetan lo egitea paraje oso politak baitzeuden, babestuta jartzen ginen arroka batzuen ondoan eta lo primeran egiten genuen.

Paseo bat balitz bezala kontatzen duzu Jon, baina gogorra ere izango zen, ezta?
Bai noski. Esfortzu fisiko bezala gogorra denik ezin ukatu, gainera egun pare batetan kristoren eguraldi kaxkarra egin zuen, beldurra ere pasatzen duzu, batez ere piraguak buelta ematean olatu zakarren artean. Hala ere une politek une latzak gainditu zituzten. Lesioak ere izan genituen baina oso arinak, eskumuturreko tendoiak, ipurdiko zauriak, katarroak... Bajoi psikikorik ere izan genuen, baina biren artean tragu txar horiek hobeto pasatzen dira.

Leku polit asko ikusiko zenituzten
Dudarik gabe, bidaia osoa ederra izan da benetan, baina lekuren bat azpimarratu beharko banu, nire ustetan Nojako kobazuloa izan da politena, Kantabria aldean; Cies edo Cabo Villano ere ez dira atzean geratu.

Honelako bidaia batean anekdota mordoa izango duzue.
Ezingo nituzke denak kontatu baina badaude batzuk oso esanguratsuak. Queirugako hondartzan, Finisterre pasata, bidaiarekin jarraitzeko asmotan esnatu ginen, baina zeuden olatuen erruz ezin izan ginen atera ere egin arraunean hasi orduko hondartzara botatzen gintuztelako olatu zakarrek. Badago beste kontu oso dibertigarri bat: Santander parean ginela arraunetako bat erori eta itsasoak irentsi zuen. Han joan ginen Julen eta biok Santanderreko 'Corte Inglés'-era beste bat erostera, jendeak eroak bagina bezala begiratzen gintuen, dibertigarria izan zen benetan.
Bukatzeko emotiboa izan zen bat: Bermeon ginela Donibanetik atera ziren larruzko untziak zetozela jakin genuen, beraz han itxoin genien portuko sarreran eta dultzaina eta panderoa harturik 'Bat,bi, hiru, lau' jo genien iritsi zirenean. Zirraragarria izan zen.

Eskerrik asko Jon eta bejondeizuela bioi. Zuen hurrengo abentura kontatzeko irrikitan gaude.

Muebles Altzariak MR RUIZTEGUI, s.a.
MOTA GUZTIETAKO ALTZARIAK
ZURE NEURRIKO FINANTZIAKETA
Nafarroa hiribidea, 15
Tfnoak.: 943 510389-510736
Faxa: 943 510494
20110 PASAI ANTXO

PITXI TXULO
JATETXEA-TABERNA

EGUNEKO MENUAK ETA KARTA ZERBITZUA
Eskalantegi, 118
Tfno: 943 520 770
Molinao Auzoa
PASAI ANTXO

KAMIO
Taberna
1934
Gure Zumardia. 27-20110-Pasaia (Gipuzkoa)

Georgiako dantzariak antxon

Pasa den Irailaren 5an, Udalak antolaturik eta Miarritzeko Etorburu taldearen eskutik, Tblisiko Aragvi gaztetxoen dantza taldeak, Pasai Antxoko Zumardian haien herriko kantu zein dantza ikusgarriak eskaini zizkigun. Miarritzeko Etorburu taldeak iaz Kaukasora eginiko bisitaren ostean, haiek izan dira orain Euskal Herrira etorri direnak, Pasaiakoaz gain Lapurdin hainbat emanaldi eskaini dituztelarik. Haiekin batera, herriko Alkar-txiki dantza taldeko gaztetxoek bere artearen berri eman ziguten.

Nafarroa Etorbidea 23ko eraikinak buruhauste-ak ematen jarraitzen du

Iragan hilabetetan jasandako suteez gain, azken hil honetan beste bizpahiru gertatu dira Molinao erreka parean dagoen eraikin honetan. Inork ez daki nork edo zerk eragiten dituen suteak. Eraikina hutsik eta hondamendi egoeran dago enez, azkenik, berau botatzeko lanak hasi dira.

388 etxebizitza eraikiko dituzte Buenavistan

Martxan dira dagoeneko Buenavistan 388 etxebizitza berri eraikitzeko lanak. Etxebizitza horietatik 100 babes ofizialekoak izango dira. Eraikinek bost solairu izango dituzte. Hauen azpialdean aparkatzeko 423 plaza berri prestatuko dituzte, eta beste 36 leku bide publikoetan. Bota behar dituzten eraikin zaharretan bizi diren bizilagunak zein bertan kokatzen diren tailerrak eraikin berrietan berkokatuko dituzte. Halaber, proiektuak oinezkoentzako pasealekua, plaza handi bat eta umeentzako jolastokia aurreikusten ditu. Lan hauek guztiek Pasaiako Eskalantegi kalearekin bat egingo dute. Proiektu honek 500 miloitik gorako aurrekontua du.

URTXINTXA BULL
URTXINTXA BULL, S.A.
Gipuzkoako English Mark Darts operadoreak
Gure Zumardia 13, behea
Pasai Antxo. Tel. : 518527

Bar Goiherri C/ Eskalantegi, 36 - Tel. 943 51 00 19
PASAI ANTXO

MIMOS TABERNA
tel.:
943 51 85 27
Pasai Antxo

TESTUA URKO ETXEBESTE

Iñigo Chaurreau (edo)
Umiltasunaren garaipena

"Txirrindularitza kirol gogorra da, baina oso polita."

Kilo batzuk hartu dituela esan didan arren, oso argal dagoela iruditzen zait. 'Barkatu. Berandu xamar iritsi naiz'. Jakina, nolatan okurritu zait elkarrizketarako hitzordua Espainiako itzuliko etapa interesgarrienaren osterako jartzea. 'Nik parte hartzen dudan lasterletak bideoz ikustea ez dut batere gustuko, sofan jarrita ikusten ditudanean, berriz...'. Iñigo Chaurreau, 28 urteko antxotarra da, azken uda honetan ahoz aho ibili den txirrindularia, Tourrean 12. postu ezin hobe bat lortu ostean. Hona hemen hark esandakoak.

Iñigo Italiako Polti taldean zeghoeneko irudia. Bertan, hiru urtez, profesionaletan lehen urratsak eman zituen.

Pasaian, txirrindularitzari dagokionez, ez dago tradizio handiegirik. Nola sortu zitzaizun afizioa?

Txikitan nire kirol afiziorik handiena futbola zen, herrian gehienei gertatu zaien bezala, gutxi gora behera, txikitan futbolaz beste aukera gutxi dago beste kirolen bat egiteko. Hala ere, nik osaba bat nuen txirrindularitzan ibilitakoa. Ikastolako lagunekin gainera pixkanaka-pixkanaka txirrindaz ibiltzen hasi nintzen. Denbora aurrera zihoan heinean gero eta gustukoago nuen kirol hau, eta osabaren bitartez nire lehenengo txirrindularitza ekipoa izango zenean korritzen hasi nintzen, "Orbea donostiarra"n alegia. Ekipo honetan alebinetan, infantiletan eta jubeniletan ibili nintzen. Behin mundu horretan sartuta nengoela, afizioa areagotu egin zitzaidan eta aurrera jarraitu nuen, txirrindularitza gero eta serioago hartuz: gehiago entrenatu, zaindu, lasterketa gehiagotan parte hartu... Jubenil-afizionatu tarte horretan, nire bizitza txirrindularitzaren inguruan enfokatzeko erabakia hartzeko unea iritsi zen, eta hala, unibertsitatean hasi nituen ikasketak alde batera utzi nituen... dena txirrindulari izateko egiten hasi nintzen. Azkenean, profesionaletara pasa, eta gaur arte...

Eta profesionaletarako jauzia... Italiaraino. Nola gertatu zen hori guztia? Kontaiguzu nolakoa izan zen hango esperientzia.

Bai, salto handia benetan. Afizionatuetan ibili nintzen hiru urteetan nahiko paper polita egin nuen. Emaitza onak lortu nituen. Egia esan, jeneralean txirrindulariek denbora gehiago ematen dute afizionatuetan 'jauzia' eman arte, eta esan daiteke 'goiz' egin nuela afizionatuetatik profesionaletarako pausoa. Baina aukera izan nuenean, erabakia hartu eta Polti ekipoaren eskaintza onartu egin nuen.

21 urterekin beste herrialde batera lan egitera joatea gogorra da. Gainera hori, nora eta Italiara, munduko txirrindularitzarik lehiakorrena duen estatura. Ordura arte telebistan ikusten nituen txirrindulariekin korritzeak, inpresio izugarria eragin zidan. Ilusio handiz bizi izan nuen Italiako garai hori. Txirrindulari gisa asko ikasi nuen esperientzia hartaz, eta

orain, denborarekin, oso balantze ona egiten dut han pasatutako hiru urte horietaz... Mauro Gianetti, Rebellin, Lombardi, Eric Boyer, Luc Leblanc, eta Gianni Bugno bezalako txirrindulariekin asko ikasi nuen, pasada bat izan zen...
Gainera, nire lehenengo itzuli handiak korritu nituen Poltirekin, lehenengo bi urteetan Espainiako itzulia korritu bainuen, eta hirugarrenean, berriz, Tourra ezagutzeko aukera izan nuen.

Txirrindularitzan hasi zinenean, horrelakoa zela uste al zenuen profesionalen mundua?

Badira profesionalen munduan hainbat eta hainbat gauza espero ez nituenak, ez alde txarrari dagokionez, onari baizik. Txirrindularitza ez da telebistatik ikusten dena bakarrik, lasterketa eta kitto. Atzealdean masajistak, mekanikoak, medikuak, zuzendariak.. eta beste jende asko daukagu, eta horiek txirrindulariak bezain garrantzitsuak dira ekipoetan. Lortzen diren garaipenak hauenak ere badira. Oso mundu zabala da, eta hori da espero ez nuena. Afizionatuetan ekipoen egiturak askoz ere sinpleagoak dira. Gainera, profesionaletako karrera batek mugitzen duen jende kopurua, ikusleak, karreretako langileak, ikusgarria da benetan. Jendeak uste duena baino askoz ere konplikatuagoa da txirrindularitza profesionalaren mundu hau.

Italian hiru urte eta gero, Euskaltel-Euskadi taldearekin kontratua sinatu duzu. Esan daiteke Euskaltel-Euskadi ekipo txikia dela, Polti, aldiz, garai hartan erraldoia zen. Nolakoa izan zen aldaketa?

Aldaketa handia nabaritu nuen. Esan bezala, Italiako Poltin 3 urte oso onak igaro nituen, asko ikasi nuen, baina etxerantz bueltatzeko gogoa sentitu nuen. Euskaltel-Euskadiren aukera sortu, eta itzuli egin nintzen. Garai hartan esan daiteke Polti munduko ekiporik indartsuenetakoa zela, urtean zehar garaipen piloa lortzen zuen taldeak. Euskaltel-Euskadi, aldiz, garai hartan nahiko talde xume eta kaxkarra zen. Hori niretzat ez zen oztopo izan. Niri erakarri ninduena proiektu osoa izan zen, etorkizunerako proiektu bat. Gainera, txirrindulariek egiten dute ekipo bat indartsu edo ahul, ez bakarrik diruak. Azken batean indibidualitateek ez dute talde indartsu bat indartsu edo ahul egiten, ekipo horretako txirrindulari guztiek baizik. Detaile txiki bat: gaur egun Euskaltel-Euskadi talde nahiko ona da, Polti, berriz, desagertu egin zen.

Zergatik desagertzen dira hainbesteko erraztasunarekin txirrindulari taldeak?

Txirrindularitza ez da futbola bezalakoa: futbolean ekipo bakoitzak bere zalego finkoa, estadio finkoa, talde bakoitza hiri batekoa da, eta egiturak sendotzeko hori oso garrantzitsua da. Txirrindularitza ekipoak marka komertzialek sortzen dituzte, beraz, estrategia komertzial baten parte dira. Marka horrek, edozein arrazoirengatik, ikusten badu, ez dela interesgarria ekipo bat babestea, talde horrek desagertzeko aukera handiak dauzka, beste babesle bat topatzen ez badu, jakina. Horrek guztiak, txirrindularitza taldeak ezegonkorrak izatea dakar, batez ere Italia aldean, urtero izaten baitira izen aldaketak eta ekipoen desagertze eta jaiotzak.

... eta 2001eko Tourrean parte hartu duzu.

Euskaltel-Euskadin nagoenetik 4. urtea izan da hau, eta taldeak Tourrean parte hartzeko gonbita jaso zuen. Nire txirrindulari profesional karreran, isilean, baina nahiko postu jatorrak lortuak nituen, mundial batean ere parte hartu nuen. Aurten ere, isilean, nahiko postu onak lortuak nituen hainbat itzulitan. Egia esan, nik banekien noizbait nire barruan dudan onena emango nuela, eta aurten, hori besterik ez dut egin Tourrean, dudan onena eman. Nik beti izan dut konfidantza neure buruagan, eta banekien noizbait puntan ibiliko nintzela, eta non eta Tourrean azaldu dut neure benetako maila, munduko karrerarik ospetsuenean. Esan bezala, nahiko postu onak lortu ditut profesionaletako 7 urte hauetan, baina Tourrak duen dimentsioagatik jendeak orain izan du nire lanaren berri. Hala ere, aurten konturatu naiz hoberena etortzear dagoela, nigan konfidantza handia dut. Jakina, nire lanaren ondorio zuzen emaitzak dira, hemen ez dizu inork ere ezer oparitzen.

Zer du Tourrak berezi beste lasterketekiko?

Tourra da txirrindularien artean 'famarik' handiena duen lasterketa. Beharbada, ez da gogorrena, baina txirrindulari guztiek gogorren eta egokien prestatzen duten lasterketa da. Bestalde, Tourrak mugitzen duen guztia ez dute beste lasterketek mugitzen. Izugarria da, halaber, mugitzen den mundu osoko kazetari piloa, ekonomikoki ere oso indartsua da, zalego asko mugitzen du, ingurunea izugarrizkoa da... Adibidez, eta guztietan gertatzen da hori, 0 kilometroa izan edo 100. kilometroa izan, errepidea ikuslez gainezka dago. Oso handia da. Ikusgarria.

Ongi etorri beroa egin zioten antxotarrek Iñigori Tourreko balentriaren ostean. Hona hemen Iñigo bere lagunekin.

Ekipoak Tourrean parte hartzen zuen lehenengo aldia izanik, nola eraman duzue hau guztia?

Lehenengo astea oso txarra izan zen taldearentzat. Etapak oso azkarrak eta urduritasunez beterikoak izan ziren, eta taldeari pixka bat kosta egin zitzaion lasterketaren martxa hartzea. Aste hori gainditu, mendia iritsi, eta gauzak onera aldatu ziren. Azkenean, balorazio oso ona egin dugu Tourraz, etapa eta guzti.

Tourra amaitu ostean, mahai gainean hainbat ekiporen eskaintzak dituzu, eta Ag2r frantziarrarena onartu duzu.

Ni betidanik oso txirrindulari erregularra izan naiz. Isilean, baina beti postu nahiko onak lortu ditut etapa askoko lasterketetan. Ag2r taldea nik dudan perfila betetzen zuen txirrindulari baten atzetik zebilen. Eskaintza ekonomiko ona egin didate, eta Tourrean postu on bat egiteko nigan jarri dituzte begiak, eta konfidantza handia eman didate: hara ekipoko lider papera betetzera noa. Gainera, nire eskakizunen artean, Mikel Astarloza, lehengusu sanpedrotarra nirekin ekipoan izatea zegoen, eta haiek baldintza onartu egin zuten. Lehengusua oso txirrindulari ona da.
Talde bateko liderra izatea gauza berria da niretzat, baina erronka gisa hartuko dut hau, erantzunkizun handiz. Gainera, uste dut, nik orain behar dudan gauza hori dela: talde batek nigan konfidantza izatea, hala, dudan guztia emateko.

Nola ikusten duzu Dopinaren afera?

Auzi honetan momentu larri batean gaudela uste dut. Pentsatzen dut dopina beti izan dela kirolean. Lehen ez zegoen kirolariarengan egun dagoen kontrolik, eta jakin ezazu lehen, hainbesteko kontrolik ez zegoenean, jendeak ezer hartzen zuen ala ez. Dopinaren aurka inoiz baino gehiago borrokatzen ari dira agintariak. Ez dut uste gaur egun Dopin gehiago edo gutxiago dagoenik, dopina atzemateko lehen baino bitarteko gehiago dago, besterik gabe, eta pil-pilean dagoen gaia da.

Zein giro izaten da tropelean, txirrindularien artean?

Txirrindularien arteko erlazioak oso arraroak dira, gaur zure taldekide dena bihar etsai izan baitaiteke. Oso erraz aldatzen da jendea ekipoz, merkatua oso arina da. Nik 7 urte daramatzat profesionaletan, eta lagun asko egin ditut. Hori bai, Italiarrak, orokorrean, pelotoian oso builosoak eta baziloiak dira, eta Armstrong edo Ulrich bezalako txirrindulariak oso serio eta zuzenak dira.

Bukatzeko, Iñigo, zer esango zenioke hasiberri bati?

Ni oso berezia naiz aholkuak emateko orduan. Jeneralean jendeak txirrindularitza gogorregia dela esaten die gazteei, hasiberriei, eta hobe dutela .futbolean edo beste kirolen batean trebatu. Nik, alderantziz, txirrindularitzan hasi nahi duen gazte bati animo guztiak ematen dizkiot. Hori bai, animo emateareki batera argi esaten diet kirol oso gogorra dela, eta zerbaitetara iritsi nahi badu, guztiz zentratu behar duela txirrindularitzan. Kirol gogorra da, baina oso polita.

Galdera 'ofizialak' bukatu ostean, batek txirrindularitzaren inguruan dituen hainbat kezka azaldu dizkio Iñigori. Esan didanez, lasterketan zehar jaten dituzten gauza txiki horiek 'ez dira hain txarrak. Bereziki niri pastel borobil batzuk gustazten zizkit'. 'Aurtengo Tourrekoa kristorena izan da. Inoiz ere ez da mugitu txirrindularitza talde baten inguruan hainbesteko zaletu kopurua. Ikusgarria izan da. Txirrindulari atzerritarrek inbidiaz begiratzen gintuzten.' dio Tourrean euskal zaletuek izan duten portaerari buruz. Batek galdera filosofikoa prestatua zuen, ea zertan pentsatzen den Tourmaleteko aldapa amaitezin horietan, berak berriz, guztiz zapuztu dit galdera, *'Gara* egunkarian egiten nuen eguneroko kronikan zer idatziko, nuen buruan'.

Bidaiatzeko zer garraio mota nahiago duzu? Zergatik?



1 Aingeru Rodriguez.
25 urte. Langabetua.

Hegazkina. Azkarra delako.

2 Larraitz Arbelaiz
29 urte. Ludotekaria.

Inguruan ibiltzeko bada, kotxea, nahi duzun lekura iristeko aukera ematen dizulako.

3 Kizkitza Kabada.
29 urte. Koordinatzailea.

Kotxez. Europa mailan bidaiatzeko eta kotxe egokia izan ezkero, hau dut gustokoen. Aurten Kroazian egon gara, kotxez egin dugu bidaia osoa. Ia 5000 km dira baina oso gustora egin dugu bidaia.

4 Joxe Mari Lizarazu.
39 urte. Harakina.

Egia esan, ez naiz batere bidaizalea; beraz, "egun pasa" egingo nuke, nola? oinez, noski: kostaldetik joan, mendiren batera igo...

5 Leire Makazaga.
26 urte. Ludotekaria.

Kotxea, nahi duzun lekuan gera zaitezkelako.

6 Bingen Arellano.
40 urte. Arduraduna.

Orain etxean dugun egoerak asko moldatzera eraman gaitu. Alaba bat izatetik bat-batean hiru edukitzeak ohitura asko aldatzera behartzen zaitu. Bidaia luzerik ez dugu egin etxean gehiago garenetik, baina Donostiara joateko, autobusa oso ondo dagoela esan behar dut. Etxe ondoan hartzeko aukera, gurea bezalako kotxe bat sartzeko arazorik ez, eta gainera aparkatzeko toki bila ibiltzeko eromen gutxiago.

7 Gorka Perez.
22 urte. Ikaslea.

Gustatuko litzaidake, esate baterako, Europan zehar bidaiatzea eta horretarako trena erabiliko nuke, "interrail" txartela baitago.

8 Igor Jaular.
20 urte. Galdaragilea.

Hegazkina, erosoagoa eta azkarragoa delako.

9 Urko Askasibar.
24 urte. Mekanikoa.

Hegazkina iruditzen zait erosoagoa eta azkarragoa, baina hala ere gustokoa daukat trena. Trenak ematen dizu aukera paisaia ikusteko. Altxatzen zara, buelta bat eman, zer edo zer hartu...hori guztia.

10 Fran Franco.
37 urte. Biltegiko langilea.

Aurtengo udan Galizira joan naiz trenean. Familiko besteak hegazkinez joan dira. Nire ustez trenean garraio sentsasioa duzu. Hegazkinez aldiz ez dut bidaiatu dudanaren sentsazioa, irten eta iritsi, segituan egiten duzu bidaia. Esango nuke traslazio bat dela hegazkinez ibiltzea. Gainera trenean jendea ezagutzen duzu, hitzegiten zoaz...

11 Elena Eizagirre.
57 urte. Liburu saltzailea.

Zer ez dakit, baina zer ez nuke erabiliko bai: hegazkina; Estatu Batuetan gertatutakoagatik, badakizu. Normalean kotxea erabiltzen dut bidaiatzeko, ematen duen mugimendu askatasunagatik. .

12 Mikel Renteria.
43 urte. Zeladorea

Bidaiatzeko gehien gustatzen zaidana hegazkina da, azkarra delako.

Oporren itzuleran bidaien oroitzapenetan blai

Bi lagun: Pello Elizasu eta Pablo Isasa. Herrialde bat: Peru. Bi txirrinda, alportxa parea eta abentura batetarako gogoa. Horrelako osagaiekin hasten dira mamitzen hainbat eta hainbat bidaia. Oporrak amaitu berri zaizkigun honetan, Brankan, uda osteko depresioaz hitz egin beharrean, bidaien nondik-norakoetan murgiltzea nahiago izan dugu. Horretarako bidelagun bi sanpedrotar. Beraien esperientziaren bidez, eta irakurketa bitartekoko besterik ez bada ere, denok zeozer gehiago goza dezagun.

Pablo Isasa eta Pello Elizasu, maiatzaren bukaera aldera atera ziren San Pedrotik Limarako bidean eta ekaina amaieran etxera bueltatu. Helburua: txirrinda gainetik Peru ezagutzea. Iaz erabaki zuten plana, eta bidaia gauzatu bitartean hemen ere hainbat lan atera zuten aurrera. Han egin behar zutena erabaki eta hori guztia aurrera atera ahal izateko prestakuntza. "Fisikoki prestatzen hasi ginen hara joan eta hainbeste sufritu beharrean gozatu ahal izateko" kontatzen digu Pellok. Honela, Peruko errepideak txarrak izango zirela aurreikusiz, mendi inguruetan bizikletarekin ibiltzeari ekin zioten eta prestakuntza ahalik eta eraginkorrena izan zedin pisuarekin abiatzen ziren behin eta berriz mendi inguruetara.

Konturatzerako maiatza iritsi eta bizikletak ekipaje barruan desmuntatuta Limarako bidean zeuden. Han Pabloren lehengusua zuten zain baina hala ere "hasieran urduri gindoazen, Lima oso arriskutsua dela bagenekielako eta pixkat beldurturik ginen" kontatzen digu Pablok. Pellok kontatu digunez " Lima ingurua masifikatu egin da. Kristoren herri pila sortu dira, 'Pueblos Jóvenes' deitzen dituztenak eta bertan txabolismoa da nagusi; jendea botata, droga pila, delikuentzia…Perun 22 milioi pertsona bizi badira, Liman 11 milioi pertsona bizi direla kalkulatzen da. Ia erdia Liman dago".

Limatik Blanca mendikatera abiatu ziren eta Huaraz herria abiapuntu hartuta txirrindara igo eta mendikateari bira emateari ekin zioten. Zortzi egun eman zituzten horretan. "Buelta hori oso polita izan zen; herri txiki asko bidean, beti jendearekin ondo, paisajea kristorena gozatu genuen biek…". Hala eta guztiz ere dena ezin izan gozatu: "bertako mendateak bukaezinak dira. 'Mal de altura' delako hori pasa genuen: buruko mina eta orokorrean ondoeza. Oso gogorra izan zen" kontatzen digu Pablok.

Blanca mendikatea amaituta, autobus bat hartu eta Limara abiatu ziren, han, beste autobus batean Arequiparako bidea hartzeko. "Hegoalde honetara joateko 25 bat ordu autobusean eman genituen. Hartu genuen bigarren autobusean bidaia oso gaizki egin genuen: kristalak izoztuta, jela…exageratzioa. Bidoietan eramaten

majestik

Oarso 13, behea esk. Pasai Antxo
Tel. 943 34 00 64 Fax 943 52 97 83
Irekita: 10:00/13:00 eta 16:00/20:00
Urtarrilak 22tik aurrera Larunbat arratsaldez irekita
WEB:http://www.iturgaiz.com
E-mail:majestik@iturgaiz.com

Pasai Antxoko dendan, nazioko zein inportazioko irudimenezko oihalen erakusketa handia eskaintzen dugu; eta Lezoko industrialdeko biltegian, eskaparateen apainketarako edozein motatako figurak dituzu alokatzeko. Gainera, mota guztietako karrozak 2000m2-ko erakusketan.

eramaten kristoren abiaduran eta ia hankutsik, eta gu ia ia ezin arnasa hartu. Beraiek koka mastekatzen eta beti goraka, etengabe".
Machu Picchun egunpasa eta buelta Cuzcora. Han bidaiaren amaiera hurbil zegoen, izan ere, bertatik, Limarako bidea hartuko zuten, eta Liman masaje eder bat eta pulamentuzko parranda egin eta gero etxerako bueltan ziren.

BIDAIATU EDO TURISMOA EGIN?

Bidaiatzea edo turismoa egitea gauza bera ez direla begi bistan dago. Baina zein da ezberdintasuna? Pelloren ustez " bidaiatu gehiago izango litzateke joateko txartelarekin soilik ateratzea. Bueltakorik gabe". Pablo eta Pello, ahal izan duten neurrian turismoa ebitatzen saiatu dira baina beraiek bertan onartzen duten bezala, aldez aurretik dena planifikatu, informazioa jaso eta jakin bazekiten etxera bueltatu eta lana eta hemengo bizitzari berriro ere ekingo ziotela.
Bidaiatzeko aukeratzen den garraio motak ere erabat baldintzatzen du bidaia. Horregatik jakin nahi izan dugu zergatik aukeratu duten txirrinda. Pellok zera erantzun digu:" hemen ere asko ibiltzen garelako. Aparte, medio on bat delako bidaitzeko". Zentzu honetan Pablok zera dio " gauzak lasaiago ikusteko parada ematen dizu, eta jendearekin harreman zuzenagoa duzu ere. Abentura kutsua ematen dio. Gainera mendia pila bat gustatzen zaigu eta txirrindarekin aukera daukazu autobusak iristen ez diren herrietaraino hurbiltzeko."
Pello eta Pablo bidelagun, irakurri eta nolabait bidaitzeko aukera izan dugu. Horregatik, ez genuke inolaz ere nahi, handik beraiek ekarritako ikaspen garrantzitsuenak guk ez barneratzea. Pablorentzat harrigarriena da "zer pozik bizi den hango jendea ezer gabe" eta Pellok gogoratzen digu "beste mundu hori ere badagoela".

genuen ura izoztu egin zen". Arequipatik Coca-ko arroila egitera joan ziren. "Hango Condorrak ikusi genituen. Oso famatuak dira.
Jende guztia joaten da horiek ikustera. Kuriosoa da. Goizean ateratzen dira eta hegaz egiten dute egunsentiko aire korrienteak aprobetxatuz eta 09:30erako alde egiten dute. Jendea normalean autobusez joaten da horiek ikustera baina gu txirindaz joan ginen eta horretarako ilun zegoela abiatu ginen, goizeko 06:00etan. Juxtu juxtu ailegatu ginen. Bat ikusi eta aire. Diapositiba pare bat atera , jende guztiak alde egin zuen eta Pello eta biok han bakarrik gelditu ginen, izugarri ondo eta kristoren bistarekin" kontatzen du Pablok.
Hortik Titi Cacara joatea erabaki zuten eta ur gaineko oso irla politak ikusi zituzten. "Totora izeneko kañabera mota batez eginak dira, eta irla horien gainean bizi dira. Etxeak, txalupak,...denak dira totoraz eginak ". Kontatu digutenez gaur egun turismoari begira bizi dira bertan, baina egia da garai batean horrela bizi zirela. Zentzu horretan Pellok zera azpimarratzen du: "kuriosoa da nola hango museoetan ikusten diren gauzak gero kalean ere ikusten dituzun".
Bertako trena ere ezagutu zuten, Cuzcorako bidea bertan egin baizuten. " Cuzcora jaisteko trena odisea bat da. Atzera-martxan eta zig-zagean. Trena 1500 metrotan hasten da eta 4000 metroraino igotzen da, gero 2000 metroraino jaisteko. Jaitsiera oso poliki egiten du eta azkeneko zatia hain aldapatsua da, zig-zagean egiten dela. Trenetik ikusten duzu Cuzco bertan dagoela, baina bertan egotetik iritsi arte...".
Cuzcora iritsita eguneko planak egiten zituzten txirrindarekin eta hiru egun pasata Machu Picchura joatea erabaki zuten. "Lau egun eman genituen; mendian, oinez, gustura". Garraiatzaileekin joan ziren eta esperientzia honen inguruan zera kontatu digute "Haiek bakoitzak 25 kilorekin, bazkaria eta dena

agenda

URRIA 2001
Oporrak gehienontzat amaitu berri dira eta ikasturte berriari aurre egiteko unean gaude. Kultur agendan udazkenaren etorrera igerri da. Hala ere, gune hau aprobetxatu nahi dugu herriko elkarteei gogorarazteko hemen, zuen ekitaldi, deialdi edo ikuskizunen berri emateko lekua baduzuela. Animatu eta iragarri zuen ekimenak Branka aldizkarian!

PASAIAKO XX. UMOREZKO ANTZERKI JARDUNALDIAK

URRIAREN 18TIK 21ERA

'Upsalako banpiroa'
Topo Antzerki Taldea (Euskadi)
Urriaren 18an, San Pedroko Udal Aretoan, ilunabarreko 20:00etan.

Banaketa: Alizia Otxoa, Fermin Sanles, May Gorostiaga, Fátima Rodriguez, Karlota Pérez.

"okupgraf"

Donibanen:
'Grafikagintza Pasaian porturatu da'
Urriaren 3tik 21ra bitartean, Victor Hugo etxean, Okupgrafen obra grafikoa ikusgai. Hainbat tekniketan landutako 25 artisten lanak erakusgai.



San Pedron:
Gastronomi abenturak (1): 'Mahaiko portaera itsusiak'
Urriaren 26tik azaroaren 11ra bitartean, Udal Aretoan.
Antolatzaileek parte hartzeko deialdia zabaldu dute.
Nola? kaleko argazki kabinetan argazki tira bat edo gehiago atera, eta jatorrizko euskarria aldatu gabe, eta atzealdean izenburua eta egilearen izen, helbide eta tlf zenbakia idatzi ondoren, Kultur Sailera bidali, urriaren 15a baino lehenago.
Gaia: 'Mahaiko portera itsusia'. ideia orokor hori buruan edukita jorratu behar da gaia. 'Gastronomi abenturak' izenarekin datozen urteetan jorratuko den gai generiko baten lehendabiziko osgaia da hau.
Oharra: Erakusketa egunetan kaleko argazki kabina bat jarriko da aretoan. Bisitariek aukera izango dute argazkiak atera eta leku prestatu batean jartzeko.

Nius'
Basur Teatro (Almería)
Urriaren 19an Trintzerpeko frontoian, gaueko 22:30etan.

Banaketa: Fernando Labord Blanco, Belén Soriano Soriar Antonio Fernández Castillo.

'Pasarela Otoño-infierno
Jácara Teatro (Alicante).
Urriaren 20ean. Kefe-antzerl Trintxerpeko frontoian, gaue 22:30etan.

Banaketa: Inma Ortega, Mi García, Carmen Baides, Glor Sirvent, Jose A.García.

'Swintzaileak'
(Euskadi)
Kafe-antzerkia. Trintxerpeko frontoian, gaueko 22:30etan.

Kideak: Jon Celestino, Iñaki Egibar, Beatriz Hurtado, Javier Celestino, Jose Mª Mujika, Alizia Otxoa, Renato Valeruz.

'Loko Tidiano'
Luciano Federico (Italia)
Urriaren 21. San Pedroko Udal Aretoan, iluntzeko 20:00etan.

Banaketa: Luciano Federico

Euroaren etorrera prestatzeko ekitaldiak antolatu dira

'Euroekin bizi' lelopean eskualdeko dendari nahiz hiritarrak euroari egokitzeko proiektu bateratua garatzen ari da. Euroaren ezagutza zabaltzea eta dendariek egin beharreko egokitzapena erraztea dira helburuak eta horretarako disenatu den planak hainbat ekintza jaso ditu: besteak beste, liburuxkak argitaratzea, mailing-ak egitea, prestakuntza eta informazio hitzaldiak ematea, euro-azoka, edo eta moneta berria erabiltzeko pasa den irailean 20tik 23ra bitartean Trintxerpen egin zen simulazioaren esperientzia. Herritarrek, egitasmo honetan parte hartzen zuten dendetan jasotako euroen erreplikekin saldu eta erosteko aukera izan zuten. Era berean, eta jendearen partehartzea bultzatzeko asmoz jai giroa nagusitu zen kaleetan. Heldu nahiz umeentzat ekintza ugari antolatu ziren: pailazoak-haur jokoak, bidaiak globo aerostatikoan, paseoak badian zehar...Eskualdeko gainontzeko herrietan ere mota honetako ekintzak antolatu dira, Oarsoaldea, eskualdeko dendarien elkarteak, eta eskualdeko merkataritzari laguntza teknikoa eskaintzeko kabinetearen ekimenez.

Matrikulazio epea zabalik Pasaiako Lanbide Hastapeneko Ikastetxean

Sukaldaritza edo iturgintza ikasteko asmotan dabiltzan eskualdeko gazteek irailaren 28ra arte izena emateko aukera izango dute Pasaiako Lanbide Hastapeneko Ikastetxean. Izena emateko 943398800 telefonora deitu edo Trintxerpeko Gizarte Zerbitzuetako bulegoetatik pasatzea beharrezkoa da. Ikastaroak eskolatik kanpo edo Bigarren Hezkuntzako titulorik ez duten eskualdeko 16 eta 21 urte bitarteko neska-mutilei eskainita daude. Ikastaroak doakoak dira eta hainbat helburu dituzte; batetik, gaitasun profesional eta teknikoen ikasketa, bestetik, autonomia pertsonalaren hobekuntza, eta azkenik, lan munduari buruzko informazioa eta DBH-ko tituloa lortzeko laguntza eskaintzea. Era beran, erdi malako zikloetan murgiltzeko aukera dago froga bat gainditu eta gero.
Ikastaroa amaitzean eskualdeko enpresetan praktikak egiteko aukera dago, izan ere, ikastetxean eskaintzen diren bi espezialitateentzat eskari handia dago. Azpimarratzekoa da, sukaldaritzaren kasuan nesken kontratazioa areagotzen ari dela. Hori dela eta, ikastetxetik neskak animatu nahi dituzte bereziki ikastaro honetan izena ematera.
Pasaiako Lanbide Hastepeneko Ikastetxeak 12 urte darama eskualdeko gazteekin lanean buru-belarri. Programa honen balorazioa oso positiboa da, bertan ikasi duten gazteen %70 a lanean dagoelako.

Haur eta gazteentzako ikastaroen eskaintza zabala Gazteria eta Kirol Sailetik

Urtero legez, kirol eta gazteria sailak hainbat ikastaro antolatu ditu herriko nahiz eskualdeko ume eta gazteentzat. Gazteentzat sei ikastaro eskaintzen dira. Aurtengoan gazteek 'Dantza Garaikidea' ikasteko aukera izango dute lehendabiziko aldiz. Ikastaro honetan, besteak beste, gorputz adierazpena eta giza harremanetarako bideak erraztea bilatzen da. 'Egur langintza tailerra' hirugarren urtez plazaratuko da. Egurra lantzeko euskal estiloa ardatz hartuta, Erdi Aroko irudi geometrikoak eta erliebe-lanketaren hastapenak erakusten dira. Arte aplikatuen arloan beste bi ikastaro eskaintzen dira: 'Dekoraziopintura'rena eta 'Tiffaniko kristala' lantzeko tailerrak. 'Altzariak berritzeko ikastaroa' berriro ere eskainiko da. Honetan, beste eskulan osagarri batzuk ere erakusten dira, esaterako, pirograbatua eta lore konposizioa. Azkenik, 'Marrazkia eta Pintura' egiteko aukera izango dute gazteek. Ikastaro honek hiru modulo izango ditu: marrazkiaren hasi-masiak, kolore eta pinturaren nondik-norakoak, eta garapen plastikoa.
Umeei eskainitako ikastaroak bi dira: 'Marrazkia eta Pintura' eta 'Xake-jokoa'. Marrazkia eta pintura tailerrerako adinen araberako taldeak antolatuko dira: 7 eta 10 urte bitartekoentzat bi ikastaro antolatuko dira eta beste bi 11 eta 15 urte bitarteko nerabeentzat. Denak Antxon eta San Pedron. Xake ikastaroari dagokionez, azpimarratu bi maila ezberdinduko direla: hasiberriena eta aurretik ibilitakoena.
Ikastaroek ikasturtearen iraupen bera izango dute. Parte-hartzaileen kopurua mugatua da. Gazteen matrikulak 6.500 pta balio du pasaitarrentzat eta 8.500pta gainontzekoentzat. Haurren kasuan, 5.500pta pasaitarrentzat eta 7.500pta herritik kanpokoentzat. Izena-emateko epea urriaren 5ean amaitzen da. Izena-emateko Gazteria eta Kirol Sailera jo behar da (tlf-943400108).

Kantauri Ludoteketan izena emateko epea zabalik da

Herriko ludotekak prest daude aurtengo ikasturteari hasiera emateko. Bertan 4-13 urte bitarteko haurrek eman dezakete izena. Ludotekan adin bereko lagunekin jolasteko gunea eskeintzen zaie umeei, ekintzak euskaraz jorratuz haurrek euskara ez dela soilik eskola-hizkuntza ikus dezaten. Jarduerak urrian hasiko dira eta ekainerarte luzatuko dira. 4-8 urte bitarteko haurrentzat, ludoteka astelehenetik ostiralera zabalduko da 17:00etatik 18:30era, eta 8-13 urtekoentzat 18:30etik 20:00etara. Halaber, larunbat goizetan zabalik egongo da 11:00etatik 13:00etara. Izena emateko San Pedro eta Trintxerpeko haurrek Arrantzale auzko eskola ohian kokatzen den ludotekara jo behar dute (tlf: 943392510); Donibeneko haurrek, eskola publiko ohira (943517290) eta antxotarrek, San Fermin eskola ohira (tlf-943510645). Ikasturte osorako kuota 5.200 pezetakoa da.

Herriko euskaltegiek ikasturte berrirako eskaintzak plazaratu dituzte

Herriko euskaltegiek zabaldu dute jada euskara ikasi nahi dutenentzako matrikulazio epea. Euskalduntze maila guztiak eskaintzen dituzte eta baita Alfabetatzen eta EGA ere. Administrazio eta hezkuntzarako hizkuntza eskakizunak ere presta daitezke bertan.
Ohiko eskaintza hauez gain bestelakoak ere badaude; esaterako, gurasoentzako, dendarientzako eta langileentzako talde bereziak, Mintzalaguna programa eta ikasle bakoitzari egokitutako eskolak. Aipatu ere beka sistema dagoela 16 urtetik gorakoentzat eta goizez, arratsaldez nahiz gauez ikasteko aukera dagoela.
Udal euskaltegian, aurtengo berrikuntzen artean aipatu elbarrituentzako aszentsore berria jarri dutela.

Enplegu aukera berriak eskualdean

Oarsoaldea S.A. Garapen Agentziak, eskualdeko enpresekin mantentzen duen kontaktu iraunkorraren bitartez, pertsona kualifikatuen premiazko beharra bat detektatu du eraikuntzari eta hirugarren adinekoei begirako zerbitzuei dagokienean.
Gabezia hauei irtenbidea emateko, aipatu garapen agentziak eta gure eskualdeko lau Udalek, beste hainbat ikastaroren artean, 'Igeltsu plaka kolokatzailea', 513 ordutako ikastaroa eta 'Geriatriako Laguntzailea' , 204 ordutakoa, deritzaten ikastaroak antolatu dituzte, ikastaroen eskakizunak betetzen dituzten partaideen %60ak gutxienez izango duelarik lanerako aukera ziurra, ikastaroak antolatzera bultzatu dituzten enpresen beharrak asetzeko.
Aipatu bi ikastaroez gain, Oarsoaldea S.A. Agentziak 'Web orrien Programazio eta Diseinua' 468 ordutako ikastaroa, 'Harategia', 233 ordutakoa eta 154 ordutako 'Arrandegia' ikastaroak antolatuko ditu.
Ikastaroetan parte hartzeko baldintza orokorrak hauexek dira: langabezian egotea eta aurreikusitako epeetan eta ordutegian ikastaroa burutzeko disponibilidadea. Ikastaroak guztiz doakoak dira. Informazio gehiago nahi izanez gero Oarsoaldea S.A. Agentziak Errenterian, Olibet Auzoa 6 behean dituen bulegoetan edo 943 51 02 00 telefonora deituz eskura dezakezue.

zuk zeuk!

LIBURUA
'SISIFO MAITE MINEZ'
Laura Mintegi

Liburuak psikoanalisiaren bidez amodioaren inguruko azterketa egiten du. Eleberriaren pertsonaia nagusia maitasunez jota itzultzen da bere ohiko etxera. Ane, maitalea utzi eta superbibentzia pertsonalagatik senar eta alaben ondora doa bere bizitzaren bidairik luzeena egitera.

Maitasuna hain da hitz ederra zeina ezinezkoa zaigun sentipen negatiboekin konpara, gehienetan ordea, amodioaren intentsitateak muturreko egoera asko bizitzera eramaten gaitu: tristezia eta zoriontasuna, desira, hutsunea, antsietatea, menpekotasuna, intimitate eza....

Sisifo mito grekoak adierazten digu eginkizun bat behin eta berriz egiten dela berau lortzearen esperantza galdu gabe. Sisifok berak erabakitzen du harria hartzera joatea, berriro menditik behera eroriko zaiola jakinda, baina erabakia bera da bizirik dagoelaren seinale.

" Maitemintzea edonoren esku dago baina maitatzea ez. Erantzuna norberaren baitan dago."■

BIRJINIA ORTEGA

WEB ORRIA
FETICHEONLINE.COM

Feticheonline.com web orrialde batetan kaleratutako aldizkaria dugu. Gaur egun hain modan dauden aldizkari horietakoa da, kultura moderno eta alternatiboa islatzen duenetarikoa .Ez da bere lehendabiziko alea, zazpigarrena baizik. Honen berri orrialdea ireki bezain laster edukiko dugu, bertan orain arte paperean argitaratutako zenbaki guztietako azal ederrak agertzen baitira.

Edukiaren aldetik, moda, musika eta arteari buruzkoak. Nahiz eta aldizkari bezala osotasunez aurkezten den, zenbait kasutan gorabeherak aurkituko ditugu kolaborazioetan. Kontuan hartu beharra dago, doakoa dela eta ondorioz ez dagoela soldatarik.

Dena den , benetan interesgarria suertatzen dena itxura da, oro har xarmangarria. Diseinu eta maketazio aldetik benetan freskagarria, musika ezin xik-ago batek lagunduta.

Sar zaitezte eta goza ezazue, aspaldiko partez ez baitugu interneten ikusi horrelako lan interesgarririk. Gainera, Andoni Trekuren niki diseinu koketoa ikusteko aukera edukiko duzue (eta erosteko ere).■

BORJA ARRATIBEL

ZINEA
'LUCIA Y EL SEXO'
Zuz.: Julio Medem. Akt.: Paz Vega, Tristán Ulloa

Nahiz eta entzundako eta irakurritako kritikak oso onak ez izan, Julio Medem donostiarraren azken filmeak "zera" berezi bat du, filme oso bat egitean kamara digitala erabilti den aurreneko aldietako bat baita. Baina ez nintzen horretaz ari. Filmea, pertsonaia multzo baten kontakizuna da. Lucia (Paz Vega), zirkulu horretako partaide bilakatuko da Lorenzo (Tristan Ulloa) idazlearekin harremanetan hasten denean. Lorenzok bere iraganarekin eta bere buruarekin duen gatazkaren lekuko izango da Lucia, eta ezingo du ezer egin bera laguntzeko. Dena dela, amaieran, hari ezberdinek korapiloa osatuko dute. Sexua ere egongo da noski (zinema arruntetan ikusi ohi ez diren irudiak azalduko zaizkigu), baina ez gehiegi. Hortaz, sexua protagonista duen filme baten bila bazabiltzate, hobe duzue bideo klubera joan. Filme honek beste zerbait eskaintzen digu: mezua duen ongi planteatutako istorio interesgarri bat.■

JUANRA CANO

horrelakoak ginen

Ikasturte berriari ekiteko garaian gaude, eta horregatik argazki zaharraren txokorako eskola giroko erretratua bilatu dugu. Brankako erredakzioan ezezagunak zaizkigu argazkiko aurpegiak. Ez dakigu zeintzuk diren erretratuan azaltzen diren andereño eta ikasleak, baina bi datu garrantzitsu ditugu: Antxoko herriko eskoletan, 1963-64 ikasturtean ateratako argazkia da. Aurkitu duzula zure burua erretratuan? Bertan azaltzen zaretenon izenak badakizkizula? Idatzi bada, eta Brankako hurrengo zenbakian jakinaraziko dugu.

Iraganari begirada

GURE "NERE"

Jakina den bezala, euskarak izan zuen gutxiespen prozesu bat, prozesu horren ondorioz, jende askoren ustetan euskara etxean erabiltzeko hizkuntza besterik ez zen. Euskararen gutxiespena maitasun kontuetara ere iristen zen, honela, ba omen zegoen orain dela 30-35 urte euskarak mutiletan ibiltzeko balio ez zuela esaten zuten neska gazte koadrila bat San Juanen. Baina bazeuden ere alderantzizkoa aldarrikatzen zutenak. San Juanen hainbeste eta denetarako erabiltzen den "Nere" hitzak gaztelerazko edozein hitza bezain beste balio zuen. Hona hemen emakume horietako baten hitzak:

"Ogei urte edo genitula neska batek esan tzian: es que cuando empiezas con un chico ¿cómo vas a hablar en euskera?; en euskera no le puedes decir ninguna palabra bonita. Eta nik esan niyon: ¡ba!, nuestro neré vale para todo. Baina berak: ¡ah, que va!, no puedes decir ni cariño, ni ninguna palabra bonita"

BORDAUNDI